



## POSTERRA: ELIKAGAIEN INDUSTRIA HANDIA

### *Jarduera honen bidez lan ditzakegun edukia:*

**Arloa: Gizarte-zientziak.** 1. blokea: Eduki komunak; 2. blokea: Gure mundua.

**Arloa: Hizkuntza eta literatura.** 1. blokea: Ahozko komunikazioa: hitz egitea eta entzutea; 2. blokea: Idatzizko komunikazioa: irakurtzea; 3. blokea: Idatzizko komunikazioa: idaztea.

**Arloa: Hezkuntza plastikoa.** 1. blokea: Ikus-entzunezko hezkuntza.

**Arloa: Gizartearen eta herritarren balioak.** 2. blokea: Ulermena eta errespetua gizakion arteko harremanetan; 3. blokea: Elkarbizitza eta gizarte-balioak.

### *Behariko dugun materiala:*

«Elikagaien industria handia» posterra.

Klipmetrajeen Festibalaren VIII. edizioko posterra. «Planeta jaten ari gara!».

### *Hezitzailearentzako oharra:*


- Proiektatu edo erakutsi gelan Klipmetrajeen Festibalaren VIII. edizioaren posterra («Planeta jaten ari gara!») eta «Elikagaien industria handia» posterra.
- Azaldu zer den «Elikagaien industria handia»: jaten ditugun elikagai gehienak enpresa handiek sortzen dituzte, eta enpresa horiek kontrolpean daukate merkatua. Nola ekoizten ditu industria horrek elikagaiak? Posterrean, lau faktore nagusiak ageri dira:
  - Lur-eremu zabalak behar ditu.
  - Ongarriak eta pestizidak erabiltzen ditu.
  - Makinak eta teknika erabiltzen ditu.
  - Ur asko behar du.
- Puntu horiek garatzeko, eta elikagaiak ekoizteko sistema horrek ingurumenari eta gizakioi eragiten dizkigun kalteak ulertzeko, hausnarketa egingo dugu denon artean, irakaslearen gidaritzapean. Ikasleek posterrean ageri diren faktoreak azalduko dituzte, eta logikaren bidez garatuko dituzte kausa-ondorioak.



## Garapena:

### 1. fasea: Hausnar dezagun

- Proiektatu/erakutsi «Elikagaien industria handia» posterra. Azaldu lehen zirkuluko faktoreak zer diren (kolore eta ikono zuriekin). Elikagaien industria handiaren ezaugarri diren elementu batzuk ageri dira hor. Honelako galderak egin:
  - Zergatik behar du elikagaien industriak hainbeste lur? Zuen ustez, nola lortzen ditu lurra industria horrek? Elikagai asko sortzeko bide bakarra lur asko erabiltzea al da?
  - Zer dira ongarriak? Nola egiten dira? Beharrezkoak al dira? Zergatik?
  - Zer dira pestizidak? Zertarako erabiltzen dira?
  - Zertan laguntzen dute makinek nekazaritzan? Makinarik gabe elikagai asko sortzerik ba al dago?
  - Ura beharrezkoa al da elikagaiak ekoizteko? Zergatik?
- Gero, azaldu grisez ageri diren ikonoek adierazten dutela zer-nolako ondorioak dauzkaten elementu horiek gizakiongan eta ingurumenean, eta eskatu ikasleei ondorio horiei buruzko azalpenak arrazoitzeko. Parte har dezatela eta lan dezatela sormena, baina kontuan izan erantzun sinesgarri eta logikoak aurkitzen saiatu behar dutela. Galdera hauek lagungarriak izan daitezke hausnarketa egiteko:
  - Zergatik deforestatzen dituzte basoak nekazaritzarako? Ze ondorio dauzka deforestazioak planetarentzat?
  - Zergatik kanporatzen dituzte nekazariak beren lurretatik?
  - Nola eragiten diote ongarriek eta pestizidek lurrari?
  - Lurra nola higa daiteke? Ze ondorio dauzka laborantzarentzat lurra higitzeak?
  - Zer-nolako eragina dauka elikagaiak ekoizteko hainbeste erregai behar izateak? Loturarik ba al du horrek deforestazioarekin?
  - Ura nola kutsa daiteke? Ura kutsatzeak ze ondorio dauzka? Zer gertatzen da ur kutsatua itsasora iristean?
  - Zein ondorio dauzka kutsadurak (airearen kutsadurak, uraren kutsadurak) gizakiongan?
  - Posterreko zer iruditzen zaizue deigarriena? Zergatik?



## **2. fasea: Graba dezagun klipmetraje bat!**

- Jarri gelan ondo ikusten den leku batean Klipmetrajeen Festibalaren VIII. edizioako posterra («Planeta jaten ari gara!»), eta galdetu neska-mutilei:
  - Begira ezazue posterra. Zergatik esaten du planeta jaten ari garela?
  - Zuen ustez, elikagaiak ekoizteko erabiltzen dugun sistemak gosea sortzen al du eta baliabideak agortzen al ditu?
- Azaldu ikasleei klipmetrajea zer den. Anima itzazu landu duzuen gaiari buruz daukaten ikuspegia jasotzen duen klipmetraje bat grabatzera, behartsuen aldeko konpromisoa eta ingurumena zaintzearen aldeko mezua zabaltzeko.
- Klipmetrajeen Festibalaren VIII. edizioari buruzko informazio guztia hemen topatuko duzue:

[www.clipmetrajesmanosunidas.org](http://www.clipmetrajesmanosunidas.org)